

# Paradisu sekretuak

Panamako paperen filtrazioaren inguruko ika-mikak paradisu fiskalen zergen inguruko ezbaia berpiztu du. Zerga-paradisuen kontzeptua okerra da, berez “jurisdikzio sekretuak” diren lurraldeetako ezauzgarri bakar bat azpimarratzen baitute. Izan ere, lurralde horietako egoiliarak ez direnei eskaintzen dizkieten zerga eta babes onurez harago, toki horiek banku sekretuaren zein finantza desautzearen hobariak eskaintzen dituzte. Hala ere, lurralde bakoitzak ezaugarri bereizgarriak ditu. Esate baterako, *Tax Justice Network* (TJN) erakundeak 90 jurisdikzioen artean bere sekretismo mailaren arabera sailkapena egin zuen 2015ean eta zerrendako lehen leerroan Suitza, Hong Kong, AEB, Singapur eta Kaiman Uharteak zeuden. Bestalde, zergak ordaintzeke egindako inbertsio erraldoiak jasotzen dituzten finantza gune nagusien artean, Suitza, Holanda edo Luxenburgoko gain Londresko Citya dago. Cityak adar ugari ditu Kariben, Ozeano Barean zein Mantxako Kanalean edo Gibraltarren.

Duela bi hilabete agerian geratu zen Panamak lurraldez kanpoko elkarteak *offshore* sortu eta onartzeko duen erraztasuna. Elkarte horietako jarduera erregistroa duten jurisdikziotik kanpo egin ohi da eta bertan aberats handien, enpresa transnazionalen, bankuen edo inbertsio fondoan benetako jabeak eta jatorriak ezkututzen dira. Sortu orduko elkarte mamu horiek edozein zerga babeslekuatik dihardute; eta Panamako paperetan agertzen diren elkarteek hogeita hamar jurisdikzio uher baino gehiago baliatu dituzte –gehienak Britaniar Virjin Uharteetan izen emanda daude nolana ere–. Haatik, Panama ez da bakarria jarduera honetan: Delawarren –IBEX-35eko enpresen zerga babes nagusia– Nevadan edo AEBetako beste estatu batzuetan ere halako *offshore* elkarte ugari daude. Panamako paperek



Mikel Zurbano  
EHU-KO IRAKASLEA

Duela bi hilabete agerian geratu zen Panamak lurraldez kanpoko elkarteak *offshore* sortu eta onartzeko duen erraztasuna. Elkarte horietako jarduera erregistroa duten jurisdikziotik kanpo egin ohi da eta bertan aberats handien, enpresa transnazionalen, bankuen edo inbertsio fondoan benetako jabeak eta jatorriak ezkututzen dira

argitara eman dute European diharduten banku garrantzitsu batzuk Mossack Fonseca bulegoaren bitartekaritzaz fikziozko elkarteak sortzen dituztela, betiere beren kapitalak jurisdikzio uher horietan ezarrita ogasun publikoa saiheste aldera.

Hala berean, 2014an *Luxleaks* filtrazioa eman zen: ikusi Pello Zubiriaren artikulua, ARGIAko 2516. zenbakian; 2016/07/17. Horren bidez jakin genuen Luxenburgoko Gobernuak urteak zeramatzala enpresa transnazional ugariekin –Fiat edo Amazon kasu– horien etekinak herrialde horretan aitortzearen ordainean zerga minimoak ezartzeko negoziatzen. Garai horretan Juncker jauna Luxenburgoko finantza ministroa eta lehen ministroa zen eta Europako Batzordeko buru aukeratu zutenean egoera hori guztiz ezaguna zen. Ondoren, jakin dugu alde aurreko horrelako zerga praktikak beste herrialde batzuetan ere eman direla, hala nola Irlandan Applekin edo Holandan Starbucksekin. Europako Batzordearen kalkuluen arabera, enpresa handien zerga iruzurra urtero 50 eta 70 mila milioi euro artekoa da. TJN erakundearen azken estimazioek diote, 2014an jurisdikzio ilunetan ezkututzen zen diru kopurua munduko BPGaren %31 eta %44 artekoa zela eta munduko finantza aktibo guztien %10–%14. Beraz, zerga babeslekuak egungo krisiaren jatorrian dagoen munduko finantzamendua eta desregulazioaren funtsezko tresnak dira, ultraliberalismoaren ikur.

Zerga paradisuak ez dira finantza globalaren sistematik aparteko guneak, aitzitik, sistemako zulo beltzak izan arren, funtsezkoak dira horren iraupenerako. Finantza sare globaleko zutabeak dira, lotura irmoak ditu finantza erakunde eta botere ekonomiko globalekin. Horregatik ez dago benetako borondate politikorik interes orokorra lehenetsita zerga paradisuak ezabatzeko. ■